

Nafarroa Karria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko apirilak 2 / III. urtea / 69. zenbakia

Aro berria pilotan

Ruben Belokiren fitxaketak bortizki astindu du pilota mundua, bereziki Nafarroan, horrek eragin handia izango baitu Asegerceñen sorrerarekin aurrikusten ari den pilotaren egituraren aldaketan. Fitxaketa bera aparte utzita, Iñaki Aseginolaza enpresariak sortu zuen enpresak irauli egin ditu aurretik zeuden ideia franko, eta, ezin uka, zurbil eta ahul zegoen mundu bati bizitasuna —akaso azalekoa— eman dio. Enpresa tradizionalen haserrea ulertzekoa da, finean, haiek zituzten pribilegio guztiei amaiera ematera baitator enpresa berria: pilotariei kontratu laboralak, publizitatea, babesle ofizialak, internazionaltasuna... finantzabideak ateratzeko modu berriak, aurreko enpresek dirurik ez zegoela esaten zutenean. Duela hiru urte erdira murriztu ziren pilotari guztien kontratuak, eta egun, Belokiren soldata Osasunako jokalarik gehienek gaitetik dago. Enpresa tradizionalak ohitura eta hitza galdu dela diote, eta berriek, dena pilotaren alde egiten ari direla. Denak bat datoz esatean, finean, aro berria datorrela pilotarako.



Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Zeren, finean, Jaungoikoaren manamenduak eta lege naturala hausten dituen, goiz zein berandu, mundu honetan nola bestean, zigor garratza ezagutuko du ordainetan, eta zigortua izango da, hain zuzen, aipatu manatu horiek ez betetzeagatik, itzalezko pekatari bihurtu izanagatik... Eta burua joango zitzaion Ilun Aroko gizakumei, hauzokoak euliak bezala nola hiltzen ziren ikusita, izurrite ikaragarriek tarteko; edota, egun debekatueta okela jateagatik dardar egingo zuten erauntsi-gauez tximista noiz eroriko eta zein leihotatik sartuko ote zen esperoan; eta beldurraren beldurrez biziko ziren, halaber, belar magikoen neurri zehatzetik gora kontuz ez pasatu eta eromen eternalean eror ez zitezen... Eta nola hasieran kaosa zen, non, nahaste batean dena zegoen nahasturik, mendebaldeko botere politiko-eklesial eta militarrek —definizioz, egia bakarraren zimentarriak—, herriak eta gizakiak izan zituen erabat haren menpe, haserako kaos hartara itzularaziko zituela mehatxatuz eta beldur atabikoak erraietaraino sartuaraziz... Eta politeismoan, edo inongo teismorik sinesten ez zutenak baina egia plurala dela defendatzen zutenak, galtzaile gertatu ziren indar dogmazaleekin izandako borrokan, eta hargatik, sutara jaurtikiak izan ziren haietako asko, beren arima eta gorputzak purifikatzearen... Halabaina, bide hertsi eta exoteriko honi zorioneko galga ezarri zioten Errenazimenduko lehen zientzilarik eta libre pentsalariek, eta hauei esker, eta baita ondorengo denboratan etorriko zirenei ere, bizi izatearen zama arinduz doa egunez egun, bide esoterikoak ere ibilkitzuz direlarik. Guziarekin ere, nor bere autonomiari dagozkion eztabaida guztietan —abortoaren despenalizazioaz, sexu-harremenez, kondoiaren erabilpenaz, eutanasiaraz... kasu— hantxe azalduko dira agerian, aintzinean bezala baina beste lengoi batez plazaratuak, gizakia gorengo orden baten gehigarria baino ez dela sinesdun direnen diskurtso herdoiltzuak. Calixto Aiesa us-tezko jaun liberalarenak, behar den legez!...


Gure aukerak

Bizikletaz Nafarroako muturrera

Zapatilak etxean utzi, eta lehendabiziko aldiz, bizikleta hartuko dugu asteburu honetan, Nafarroako muturrera joateko. Bardeak izan da azken urteotako zonalderik bisitatuena, eta bertara mendizaleak, berdeak ahaztu eta horiak berreskuratu nahian; okasiorako turistak, basamortuaren irudia berreskuratu asmoz; ekologistak, dagoen ingurugiro berezia aztertzerantz; antimilitaristak, tiro poligonoaren kontra oihukatzerantz, eta antzeko fauna hurbildu da erruz.

Txirrindulariak ere heldu dira paraje bitxi hauetara, eta liburuak eta guzti atera dituzte zeintzu diren malda hoberenak 42x28 batekin igo ahal izateko. Club Deportivo Navarra taldeak ere horren aldeko apostua egin du, eta iaiztik hona ari da prestatzen horrelako ateraldiak.

Honako hau da aurtengo lehendabizikoa, eta bere atzetik etorriko dira Orreaga, Belate-Beruete, Beruete-Andoain, Urbasa-Goñi eta Bardeetara berriro, urtea amaitzeko. Joaquin Salvoch bertako presidentek azaltzen duenez, txirrindulari ibilaldi hauek badute arazo berezi bat: txi-



rindulak nola eramatearena, alegia. Izan ere, ohizko autobus batean 25 bat baino ez da sartzen, eta horren ondorioz, autobusa beti erdi hutsik gelditzen da, eta ateraldia ohi baino garestsiagoa ere atera. Hori konpontzeko aurten kamioneta bat eramango dute ondoan, txirrindulari gehiago sartzeko, eta mendigoizaleek ere joan ahal izango dute autobusean.

Goizeko zortzietan aterako

da autobusa Iruñetik, Zarrakasteluraino, eta hor El Paso deritzan bidetik, Errokaritik datorren arribidea hartu eta hortik jarraituko dugu, La Cruceta izeneko dermioraino. Tiro poligono famatuak utziko dugu eskuinaldera, eta Rincon del Bu eremutik zehar, Tuterara eta Ejea bitarteko errepideraino helduko gara. Oro har, 50 kilometro, eta jipoi handia ez bada ere, ongi prestatua egon behar, ezin uka.

ASTEKO PERTSONAIK



Iñigo Larrainzar
Osasunako jokalaria

Jokalaria gazte honek komunikabideetan zeresan ugari izan du egun hauetan, denboraldi bikaina egiten ari dela eta, Bartzelonako futbol taldea bere atzetik dabilela esan baitute batzuek. Ezkurrak, berriz, ukatu egin zuen gai hori Barcelonako agintariekin tratatu zuenik. Katalunia aldetik, berriz, zerbait esan da, Cruyff entrenatzaileak bere gustuko zuela Iñigo, edozein postuan jokatzeko balio duelako. Osasunako jokalaria, berriz, «gai honi buruz ez dakit ezer, komunikabideetan irakurri dudana besterik ez», adierazi zuen Eguzki Irratiko irratsaio batean. Baina, «egia baldin bada, gustura joango nintzen Bartzelonara», aitortu zuen Larrainzarrek. Azkenean, dena ezerezean gera daiteke, kasu askotan gertatzen den bezala.



Javier Otano
Politikaria

Javier Otano PSN-PSOeko idazkariordeak Tuterako udal taldea talde sozialistaren berregituraketaz arduratuko den batzordea aurkeztu zuen aste honetan. Talde sozialista pasa den abenduan desegin zen Tuteran, PSOeko zuzendaritzak horrela erabaki zuelako, eta ostean, Otano bakarrik geratu zen alderdiaren karnetarekin. Ondorioz, bera da Tuterako udal taldea osatu beharko duena. Hori egiteko lehen pausoa eman zuen astelehenean. Berarekin batera, Alberto Tantos, Felix Lafuente, Conchita Puyo eta Angel Salasek osatuko dute aipatutako batzordea. Azkeneko biak ez dira sekulan izan PSNko kideak eta horien izendapena gogor kritikatu zuen Perez Sola Tuterako alkateak, alderditik bota zutenak.



Serafin Zubiri
Abeslaria

Serafin Zubiri, bere benetako abizena Linzoain bada ere, protagonista izan da aste honetan, pasa den igandean Zubiri bere herritik Korrika pasa zenean kilometro bat egin baitzuen, lekukoa eramanez. Pozik agertu zen abeslari famatua, korrika egitea «gustuko» baitu eta bakarrik izan beharrean taldean bada askoz hobeto. Lekukoa hartu eta kilometro osoa erraz burutu zuen Zubirik, aurtengo Korrikan beste askok egin duten bezala. Pasa den ostiralean hasi zen Iruñean, arratsaldeko zazpitan, milaka lagun artean. Hiriburuan eta inguruko herrietan lau ordu t'erdiz bueltaka ibili ostean, Berriozartik Irurtzun aldera jo zuen. Nafarroatik atera eta berriro bertara itzuli, mendialdean, erriberan, erdiko zonaldean, herrialde osoa gurutzatu du.

ERAKUSKETAK



Patxi Aldunate artistaren erakusketa zabalik dago Zizur Nagusian datorren apirilaren 18a arte, bertako Kultur Etxearen aretoan. Pintore honen lanak ikusteko, lan egunetan arratsaldean eta jai egunetan goizetan dago zabalik.

Esklabutza eta Arrazakeria, historia eta gaurkotasuna gaiari buruzko erakusketa zabalik dago Burlatako Kultur Aretoan. Bertan, panelak, argazkiak, artisautza, bideoak, eta beste gauza batzuk ikus daitezke. Apirilaren 9a arte iraungo du.

MINTZALDIK



'Langabezia: lagabetuen psikosoziozia' gaiari buruz ariko da gaur arratsaldean Jokin Apalategi EHUKo Psikologia Fakultateko irakaslea. Hitzaldia arratsaldeko 19.30etan izanen da, Hizkuntz Eskolan, eta Udako Euskal Unibertsitateak antolatu duen III. Ihardunaldien barruan dago.

'Feminizaciones de la Pobreza' izeneko mintzaldia emango du gaur arratsaldean Sara Ojinaga Badia NUPeko irakaslea. Emanaldia Emakume Internazionalistak taldeak antolatu duen zikloaren barruan dago, 'Emakumea, inmigrazioa eta arrazakeria' gaiari buruz. Aita Eskolapioen aretoan izanen da, arratsaldeko 19.30etan.

ZINEMA



'La sombra del lobo' izenburua duen pelikula botako dute gaur arratsaldean Zarrakasteluko Arte Ederrak zinemaren. Herriko udalaren Ingurugiro Batzordeak antolatu du aste honetarako 'Zine ekologikoaren II. zikloa' eta horren barruan dago filma hau. Ondoren, eztabaida saioa izanen da bertara azaldu diren artean. Emanaldia gaueko 22.00etan izanen da, eta sarrera dohainik.

'Ederra eta Piztia' izenburuko pelikula ikus daiteke datorren igandean, apirilak 4, Leitzako zinemaren. Emanaldiak bi saio izanen ditu, bata 17.00etan, eta bestea 20.00etan. Gaur, hilak 2, beste filme bat botako dute, 'Makinavaja, el ultimo chorizo' izenburuko. Azkeneko hau gaueko 10.30etan izanen da.

AHAZTU GABE!

Jaialdi-Gaupasa izanen da asteburu honetan Iruñeko Txantrea auzoan, bihar hain zuzen, gaueko 11.30etan. Txantrea Irrati berriak antolatuta, ekitaldi ugari egonen dira. Jaialdiaren helburua oso garbia da: irratia martxan jartzeko edo bere jarraipena ziurtatzeko diru nahikoa biltzea. Sarrerekin eta edariekin lortzen dena irratirako izanen da. Egun horretan bertan, goizean, emititzen hasiko da Txantrea irratia, larunbatero egiten dituzten saioen aurkezpena egiteko. Saio bakoi-tzak zazpi minutuko aurkezpena izanen du.

Jaialdia Opera-Rock egiten duen talde batekin hasiko da, eta argiak, efeko espezialak, dantza eta sintetizadoreekin egindako montaiak aurkeztuko dute. Antolatzaileen esanetan, «ikusgarria» izanen da. Ondoren, gaupasa alaituko duen Agoizko musika talde batek joko du, «adin guztiko jendearentzat abestiak mota guztietakoak baitira, ez bakarrik gazteentzako», antolatzaileen esanetan. Era berean, Enrique Villarreal 'Drogas' Barricada taldeko abeslaria bertan egonen dela azaldu zuten. Goizaldeko bostak aldera amaituko da. Baina amaitu aurretik, zozketa izango da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

'Nola Soinu ala dantza' izeneko irratsaioa eskainiko du bihar, apirilak 3, Xorroxin Irratiak, larunbatero bezala. Bertan, gazteentzako zuzendutako gaiak, elkarrizketak eta musika mota desberdinak egonen dira. Arratsaldeko 15.00etan hasiko da, eta honen aurretik, Baztango udal informazioa eskaintzen duen saioa entzun daiteke, 13.00tan hasita. Igandean, berriz, zuzenean eskainiko du Irrati honen Gaiarreko finala.

Gazteak maisuen aurrean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Iruñeko Gaiarre Antzokia izango da heldu den igandean, hilak 4, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren aurtengo finale-rako topalekua, azken urteotan bezalaxe. Zortzi bertsolariak, Etxarri-Aranatz, Heleta eta Berako kanporaketen ondotik hobereak, Kexux Arzallus kenda, Manolo Arozena goizueta-rraren txanda hartzen ahalegin-duko dira.

Nahi adina zatitan banatu daiteke aurtengo finalera heldu den bertsolari multzo hau. Gazteak beterranoen aurrean; Bortzirietakoak iparraldekoen aurrean; lehendabiziko aldiz parte hartzen dutenak horretan dagoeneko iaioak diren parean, ikasleak irakasleen ondoan... Nolanahi ere, ezinbestekoa da azpimarratzea bertso eskolen arrakasta. Txapelketara bertsolariak eramatzen diren bigarren urtean lau sartzea oso emaitza itxurosoa da, dudarik gabe, eta gainera mail ona eman eta gero. Kontuan hartu behar da Iñigo Olaetxea eta Xabier Silveira ere bost puntu t'erdira gelditu direla.

Haien artean zer-nola ibilko diren asmatzea ez da erraza, nerbioak edo esperientzia faltak eragina izan baitu bat baino gehiagorengan. Badakite, nolahi ere, lorpen eta meritu handia dela Gaiarren abestea, eta horrekin konformatuko ez badira ere, presiorik ez da haiengan. Estitxu Arozena da, akaso, bigarren txandara sartzeko aukera handiena daukana. Oso ongi abestu zuen Heletan, eta gogo handiz ari da finala ere prestatzen. Txapelaren bila ariko diren gibeletik gertu izango da, baten bat aurreatzea zaila bada ere.

PRONOSTIKO ZAIL SAMARRAK Esanguratsua da, halaber, zenbait bertsolari kanpoan gelditu izana. Txomin Ezpondarena, akaso, gutxien espero zena. Beran, baina, ez zuen asmatu, eta aspaldiko partez ez da finalean izango. Argiñarenatarrek ere butakatik ikusi beharko dute saioa, horretara oso ohituta ez egon arren.

Pronostiko gehiegi ez da egin behar. Arozena, Xalbador eta Elizagoien artean aterako da txapeladuna. Gainontzeko guztia us-tekabean litzateke. Eta hiruren artean, Manolo Arozenak badauka atzetik dagoeneko hiru txapela, eta horrek ematen duen lasaitasuna. Jean Pierre Mendiburu oso erregular diren horietakoa da, baina denek hari fina trentzatu beharko dute bigarren txandara pasatzeko.

Izan ere, aurtengo finala bi



Iazko txapelketan bezala, Gaiarre izango da finalaren topalekua.

Aurtengo finala bi txandatan jokatu da, eta bigarrenera lau onenak pasako dira.

txandetan jokatu da. Lehendabizikoan zortzi bertsolariak ariko dira kantari, ondorengo lanarekin: zortziko handian ofizikiok, hiru bertso; zortziko txikian beste hiru bertso; lau oina emanda; eta gai bati bi bertso. Bederatzi bertso, oro har. Hörtik aterako dira puntuazioak, eta lehendabiziko laurak soilik pasatu dira bigarren txandara. Bertan zortziko handian hiru bertso; hamarrek txikian beste hiru; azken lerroa emanda eta hasiera emanda bertso bana, eta kartzelako gaian, hiru bertso. 11 bertso, beraz. Oro har, hogeit bertso, eta erregularitasuna bereziki garrantzitsua izango da, beraz.

HAMARREKO TXIKIA LEHENDABIZIKOZ Azpimarratu behar da, Nafarroako

Txapelketan lehendabiziko aldiz abestuko dela hamarrek txikian, abestu ohi direnak baino, berez, zailtasun handiagoko neurria. Manuel Lasarte leitzarraren gogoa, egun gero eta gutxiago erabiltzen da, berez zailtasuna baitakar. Bi txandetan abestek ere, bistan da, kalitatea ekarriko du. Haste-hastetik goi mailan aritu behar asko estutuko ditu bertsolarien gogoak, eta bigarren txanda, lau hoberearen artean, bertso txukunak dastatzeko parada ona izango da.

Eta ospakizun eder honek ere bere merezimenduzko segimendua izango du, Nafarroako hiru irratik euskaldunek zuzenean eskainiko baitute saioa.

Estitxu Arozena: «Txapelketari balio pixkat kendu behar zaio»

P.U. / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Lehengo egunean esan zenuen finalera helduz gero arriskatu beharra zegoela. Zer esan nahi zenuen horrekin?

ESTITXU AROZENA.— Azkeneko laurekin batera pasatzea, nahiz eta hori oso zaila izan.

EGUNKARIA.— Hori da zure helburua?


ARZENA.— Helburua finalera sartzeko zen, igandean bigarren zatira pasatzen ez bagara ez da ezer gertatzen. Nahia beti hor dago, eta horretarako hasieratik bete-betean aritu beharra dago.

EGUNKARIA.— Zer balio ematen diozue gazteen artean finalera pasatu edo ez pasatzeari?

ARZENA.— Ez luke horrela izan behar, baina txapelketari prentsan egundoko garrantzia ematen zaio. Orduan, finalean sartzeko esan nahi du zure izena egunkarietan askotan ateratzea eta horrek esan nahi du beste bertso saioetara asko deitzen dizutela. Nik lehengo urtean kriston diferentzia nabari nuen iazko finalera sartu baino lehen, eta finalera sartu ondoren. Horrek zirikusia badu, bertso saioak antolatzerakoan, txapelketako erreferentzia hartzen baitu jendeak. Ez luke horrela izan behar. Hala ere, gure adinarekin, ezin dugu egun batean dena jokatu, eta uste dut txapelketari balioa kendu behar zaiola.

EGUNKARIA.— Lau gazte eta lau 'beterano'. Sumatuko da diferentzia igandeko finalean?

ARZENA.— Txapelketa gaztetu egin da, iaz bi geunden, eta aurten lau. Horrek ekarriko du entzuleen aldetik ere gazte gehiago izatea.



Estitxu Arozena.

Maila aldetik nik uste dut ez dela jeitsiko. Hauek pasatu dira lehengo urtean finalean zeuden beste hirurak atzera utziz. Horrek esan nahi du, nere ustez, maila hobetzen doala.

EGUNKARIA.— Pronostikoren bat?

ARZENA.— Ez dut etxerako egin nahi, baina nik uste dut aitak aukera asko dituela. Hor dago Bittor ere bai, eta ez da maisuari loreak botatzeagatik (barrezka), baina hor ariko dira biak. Hala ere, besteak ere sorpresa emateko prest gaude. Ez agian txapelkerako, baina ahalegin guztiak egingo ditugu.

EGUNKARIA.— Noiz izango da txapela gazte baten buruan?

ARZENA.— Zaila da esatea, baina orain goazen garapenera, eta garapen honek aurrera jarraitzen badu, ez dut uste urte asko pasatu beharko dutenik.



GARESKO euskaldunek merezimendu osoz eskuratu dute aste honetako lehen txapela, 'Murgarren' euskara hutsezko aldizkaria abian jartzeagatik. Lehen alea kalean duzue dagoeneko eta aurrerantzean hiru hilabetetik behin kaleratuko da. Hala ere, maiztasuna, edukia eta diseinu ez daude erabat finkatuak, denborak eta irakurleen iritziek emango baitiete itxura. Lehen aleak zortzi orrialde ditu eta bertan elkarriketak, umorea, denborapasak eta hainbat albiste eta erreportai labur agertzen dira.

ATARRABIAKO Eragintza gazteen sustapenerako taldeak lan merkatu txikia sortu du, lantxoak eskaintzeko zein eskatzeko. Umeak zaindu, etxeak garbitu, klaseak eman... edo antzeko lanen bat egiteko prest bazaude, edota horrelako betebeharren bat egiteko norbait behar baduzu, zoaz Atarrabiako Udalara izena ematera (12 04 77 telefono zenbakia).

LIZARRAKO zinegotzien martxoan soldadak Balkanetan dirauen gerraren ondorioak leuntzeko izango dira, udalbatzak aho batez onartu zuen mozioaren arabera. Jose Luis Castejon Lizarrako alkateak 'Gerrari ez' batzordeari eman zion 350.888 pezetako taloia, honek bitartekari lana egin zezan.



FITEROKO zinegotzia den Josefa Alfarak 100.000 pezetako isuna ordaindu beharko dio alkateari «egindako kalte moralaren truke», Tuterako epaitegiak onartutakoaren arabera. Alfarak «lapurra zarela esan dezaket» bota zion Manuel Fernandezi udalbatza batean, eta honen horren aurkako kereila jarri zuen.

DONEZTEBEKO gurutzan itsasita gelditu zen pasa den igandean kamioi bat, bertan dagoen etxe baten paretaren magalean. Ez zen zauriturik izan, baina etxeak kalte material handiak izan zituen. Gurutze hori biziki arriskutsua da, errebolta batean eta errepidean bertan baitago. Errepidea ezagutzen ez duenak ere ez dauka inolako informaziorik, iragarki txikiak eta txarrak baitira. Gobernua errepideak hobetu eta modernizatzeaz harro agertzen den bitartean, oraindik orain, Nafarroan, Doneztebeko gurutzea bezalako zentzugabekeriek dira. Konpontzeko errez diren zentzugabekeriak, hala ere.

Bere garaian arriskatu egin zuten, eta oraingoz, ongi ateratzen dira. Asegarce pilotaren enpresa berriak kontratu laborala, fitxa finko bat eta sekulan izan ez duten lasaitasuna eskaini zien, eta onartu egin zuten. Beste batzuk, ordea, ez ziren ausartu, eta bati baino gehiagori damutzen ari zaien gaur egun. Asegarce, baina, ez zen soilik pilotarien egoera laborala hobetzeko eratu. Enpresa on guztiak bezala, dirua lortu nahi zuen, errentagarritasuna, baina gaurko irizpideekin. Publizitatea, telebistarekin kontratuak, babesle ofizialak, pilotaren internazionalizazioa... pilotari bizitazuna eta indar handiagoa emateko ahaleginak. Azken bi aste hauetan Ruben Belokiren fitxaketaz baino ez da hitz egin, izugarriko lorpena baita enpresa berriarendako. Baina polemika mingotsa ere izan da tartean, Eskulari-Pilotaberri enpresak kontratua ez errespetatzea leporatzen baitio pilotari gazteari. «Gizontasun falta» leporatu dio Juan Ignacio Retegik atzelerari, eta arazoa epaitegietan amaituko da. Arriskua ezagututa ere, Belokik pilotari pribilegiatuak izan nahi baitzuen, izan ere.

Asegarce: pilotari pribilegiatuak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

«Aro berria», «zerbait aldatzen ari da», «garai berri baten atarian gaude»... Ez dira politikariek esandako hitzak Frantziako eskuinak izandako garaipen itzelari buruz, eta ez gara azken aurkikuntza zientifikoaren berri emateko aurkezpenaz ari. Euskal pilotaren munduaren inguruan esandako esaldiak dira hauek, ahoz aho dabilzanak, aspaldi honetan. Asegarce enpresa berriaren sorrera eta bere planteamendua ausartak, eta Ruben Beloki pilotari gaztearen fitxaketak inoiz baino gehiago astindu dute normalean nekez harrizten den mundu hau. Denek onartzen dute kirol zaharrek duen berritasunaren beharra, baina enpresari talde bat buru-belarri sartu denean, bati baino gehiagori ikara sortu zaio.

Asegarce ia ez eratu zen, pilotaren munduan kirolaren ikus-puntu berria eta profesionala sartzeko asmoz. Hain berria, ezen berehala «enpresa tradizionalak» hasi zitzaizela deitzen besteei, urte urte pilota beren menpean izan zuten. Publizitatea, telebistarekin kontratuak, babesleak, eta, batez ere, pilotarien kontratu laborala izan dira aldatetaren ardatz nagusiak. «Pilotak» azaldu du Iñigo Salbidea Asegarce enpresaren gerentek, «gaur egungo gizarteari ez dagokion egitura izan du duela gutxi arte. Pilotariak ezin zion enpresari deus ere exigitu, kontratu laboralarik gabe baitzegoen, eta babesleak ez izugarria zen. Izan ere, enpresariak ez zuten inolako konpromezurik, eta soilik partiduak paratzeaz arduratzen ziren».

Pilotariak Espainiako Artisten Sindikatuen barruan egon dira —eta daude oraindik gaur egun— sartuta, kontratu laboralarik gabe, beraz. Enpresarekin sinatzen zuten kontratua, eta jokatutako partiduaren arabera kobratu: ez gizarte segurantzarik, ez


jubilaziorik, ez deus. Egoera hau aldatzeko saioak izan ziren zerbaitetan, baina pilotari guztiak onartzen zuten hortik ateratzeko ezintasuna: «Mugitzen bazinen, jokatu gabe gelditzen zinen» dio Salbidea, pilotari ohia bera ere. Mugitzen zen horietakoa zen Kiko Caballero, gaur egun Euskadiko Pilota Federazioaren presidentea. «1969an hasi nintzen ni kontratuak eta baldintza hobekak eskatzen, jokatzeaz gain, karrera unibertsitarioa eta lana bainuen atzetik. Horren ondorioz, 1980an sortu genuen Pilotari Profesionalek Elkarte, baina enpresek ito egin zuten».



Fernando Arretxe. JOXE LACALLE

Aldaketa, baina, ez da bakarrik kontratuaren izan, nahiz eta hori pilotariarendako onuragarria izan. «Azken finean, ez dugu ezer berririk asmatu» dio Salbidea, «beste kirolek aspaldian indarrean jarri zena sartu nahi dugu pilota munduan, besterik ez. Fikantzetara modu berriak bilatu behar ditugu, sarrerak eta apustuek ematen dituzten gain, eta horretarako publikitatea, telebista eta babesleak fu: «sezkoak dira». Enpresa berriaren asmoen artean ere pilotaren internazionalizazioa dago, eta hortik pasa den aseturuan Bartzelonan egin zen exhibizioa, Beloki, Fernando Arretxe eta abarrek.

Aldaketa gogorregia da, ezin uka, eta enpresa tradizionalak jaso dute kalte gehien. Merkaturak puztegia ez ote dagoen susmoa zabaltzen hasia da, eta baita baten batek amore eman beharko duen ustea ere. Asegarce, baina, urrats sendoak ematen ari da, nonbait, eta segurtasun osoz hitz egiten dute etorkizunaz. «Belokiren fitxaketarekin gure taldea osatua dago, eta orain oso pauso ziurak eman behar ditugu. Egia da merkaturak agian puztegi dagoela, eta horregatik gure kezka nagusia, orain, pilotariari agindu dieguna betetzea da». Juan Ignacio Retegik Eskulari-Pilotaberri enpresakoak, ordea, ez du etorkizuna hain garbi ikusten. «Orain paga-



Ruben Beloki. RAMON BASALDUA

tzan ari dena pagatu ezin daitekeen dirua da, eta bi aldetatik txarra da hori. Gaur egun pilotatik ez da dirua ateratzen, eta ez dakigu zer gertatuko den». Hala ere, elkarriketaren bidea ere ez du oso garbi ikusten txapeldun handia izandakoak. «Espainiako Pilota Federazioak eta Kirol Ordezkaritzaren esku dago arazoa. Hemen bi kontratu eta bi lizentzia mota daude egun, eta hori ezin da. Bat ongi baldin badago, besteak ez du balio. Horregatik erabakia hartu behar dute, bestela, pilota hondatzen da. Horrela segitza ez da posible».

Enpresariak landa, Asegarce- ren planteamendua adostasun

osoa bereganatu du pilota munduko arloen artean, eta pilotariak, federazioek eta beste etorkizuneko proiektua dela diote. Jose Mari Salanueva Nafarroako Pilota Federazioaren presidentek garbi utzi nahi du beren arloa afizionatuena dela, baina enpresa berriaren alde agertu da nabari. «Pilotariak langile normal bat bezala behar du izan, pilotak ere garai berriekin batera ibili behar duelako. Asegarcek oso antolamendu gardena dauka, eta elkarriketa eta nahiki oso onak dira. Gainera, afizionatuendako ere onuragarria izango da, profesionaletan aterabidea ikusten dutelako».

Kiko Caballerok ere ez du dunda izpirik utzen. «Asegarceren planteamenduari kritika egiterik ez dago, etorkizuneko enpresa hau delako. Beste gauza bat da interesez ezkutuak izatea, oso erraza baita enpresari izatea dirua arriskatu gabe. Orain behar da inbertitu».

Fernando Arretxe pilotaria izan zen urratsa eman zuten lehendabizikoetakoa, Errandonea, Bergara II, Bengoetxea IV, Alustiza eta beste batzuekin batera, eta laudoriozko hitzak baino ez dauzka bere nagusienak. «Enpresa berriak ekarri digu profesional sentitzea. Lehen ez ginen

horrela sentitzen, partidak egiten genituen, baina ez genituen garrantiarik. Orain bai, eta horrek lasaitasuna ematen du». Beste pilotarien artean ere horren aldeko iritzia ona dagoela dio Iñigo Salanueva. «Ni elekatzen naiz frango beste pilotarietara, eta denak kontent daude hau martxan izateaz. Badakite eta enpresa hau ez baldin bazen aurrera ateratzen, berriz eta lehengo gauzetatik itzuliko zela dena, eta ordea hau aitzina eginez, untsa zela. Beraz, oso kontent daude».

Pilotarien artean kontratu mota eta egoera desberdinak izateak ez du beraien arteko giroa zapuztuko, Arretxeren ustetan. «Pilotari guztiak izan zuten bere aukera, enpresa atera zelarik, Asegarcek denek esan baitzigen. Behar zen arriskatu eta pilotari

Beste pilotariak kontent daude Asegarce martxan izateaz. Badakite eta enpresa hau ez baldin bazen aurrera ateratzen, berriz eta lehengo gauzetatik itzuliko zela dena, eta honen aitzinera eginez, untsa zela». Fernando Arretxe.

batzuk ez ziren pasatu, pentsatuz, menturaz, ez zuelako enpresak aitzinera atera behar. Orain ikusten dute aitzina doala, eta anitzek badute pena urrats hori ez emateagatik».

Denek onartzen dute etorkizuneko pilotariaren momentu latzak pasata, zeharo baikor agertu da Salbidea gerentea. «Asegarceren dagoen antzeko giroa ez da ezagutu pilota munduan».

Retegi I: «Belokik gizontasun falta handia erakutsi du»

A.B. / IRUÑA



Juan Ignacio Retegi. JOXE LACALLE

Ruben Belokiren fitxaketak gogor astindu du pilota mundua, lehendabiziko aldiz beste kirolaren eruz ikusten diren auzi, adierazpen mikatz eta eztabaidak lerratu baitira euskal jokora. Kasu honetan, bi enpresen arteko haserre baina pilotariarekin berarekin da kexua, eta Juan Ignacio Retegik Eskulari-Pilotaberri enpresakoari adituz gero, ez dirudi erraz ahazten den horietakoa denik. «Ez genuen sekulan espero horrelakorik, uste baikegun Beloki pertsona zintzoa aterako zela, baina ez du errespetatu kontratua ez ezer».

Asegarceren lehendabiziko urratsa eman zuten Arretxe, Errandonea, Bergara II, Bengoetxea IV, Alustiza, eta beste zenbait pilotarik, baina ezin izan zuten atzelerari handiak —Galarza, Zezeaga, Beloki— eskuratu, ez ta punta puntako aurrelariak —Retegi edo Patxi Eugi, kasu— ere. Talde polita zuten, baina eskuz binakako antolatuta zuten txapelketarako Maiz II, Hirigoien eta antzeko pilotari erabili behar izan zituzten, beste kondizioetan horrelako partidua nekez jokatu zutenak. Behar zen fitxaketa handia, eta Iñaki Aseginolaza enpresari sortzailea hil aurretik



galtzeko bidean dago».

Astebetean baino gehiago igaro denean, Juan Ignacio Retegi ez dago lasaia, eta su eta gar botatzen du burlatarren kontra. Bera ere «euskaldunon hitza» aipatzen du kontratua ez hausteko arrazoi nagusizat. «Hitza haustea grabea da, eta Belokik gizontasun falta handia erakutsi du. Euskaldunon artean esana beti saildua izan da: hitz zahar eta jaungoikoa. Baina hori galduta dago hemen, askorendako. Hitza ez bada betetzen, nik uste dut dena sobran dagoela». «Berak esaten du diruarengatik ez dela izan, baina Jainkoak badaki, eta berak ere bai, diruagatik izan dela».

Horrelako pausua eman ahal izateko, Belokik arazoa ongi aztertuta zuela esan zuen, eta dudu arte esan ohi da pilotariak ezin zutela beste enpresa batekin jokatzea, baina legez, lehengo enpresekin zuten kontratuek ez dute horretarako inolako oztoporik jartzen, zenbait adituen ustetan. Kontratua zerbitzu-errentamendua izenekoa da, hau da, zerbitzu bat egiteko —kasu honetan partidu baterako— kontratatzen dena. Hori behin amaituta, ez dago kontratorik eta beste batekin fitxatu dezakete.

hitza zegoen Beloki ikutzea.

«HAUTSI DU HITZA» Pilotari gaztea, buru argiko eta gogotsua, enpresa berriak behar zuten akulua zen burlatarra, baina hiru urtetako kontratua zuen enpresa tradizionalekin. Azkenean, baina, onartu zuen eskaintza, jakinik ere horrek arazo legez egalkarriko zizkiola. Erantzerako Maiz II, Hirigoien eta antzeko pilotari erabili behar izan zituzten, beste kondizioetan horrelako partidua nekez jokatu zutenak. Behar zen fitxaketa handia, eta Iñaki Aseginolaza enpresari sortzailea hil aurretik



Iñaki Aseginolaza. AITOR BAYO

Gazteendako Zokoa

Buztanzuri arrunta

Oenanthe oenanthe

Kabia eta janaria lurrean
Nafarroan ugaria
Udan kolore erakargarriak



Belardi motzekoa

Buztanzuri guztiek, izenak ongi adierazten duen bezala, isatsa eta behealde zuria dute, eta muturra eta hegoak beltzak. Uda aldera, kolore ezberdin nabariak areagotu egiten dute txorien edertasuna, eta burua eta lepo aldea grisa, eta bularra arrosa samarra izaten dute. Negu aldera moteldu egiten dira koloreak.

Lurrean bilatzen ditu beti janariak, batez ere intsektuak, eta oso hegalaldi zuzena dauka, lurretik hurbil. Kabia lurrean paratzen du, harkaitz eta harrien artean, eta gordioa, txotxabarrak, hostoak eta belar idortuak erabiltzen ditu horretarako. Europa osoan ugari da, 3.500 metroko alturaraino, eta Nafarroan ere ugari da lurralde osoan, zenbait tokitan kenduta. Kasu hauetan ingurugiro egokiaren falta da arrazoi nagusia, eguraldiari ez baitio beldurrik.

Erribera aldean zelai zabaletan bizi da, eta iparraldean laborea duten inguruak ditu gogoko, baita goialdeko soro eta zelaiak ere. Berziki gustukoak ditu harkaitzen artean dauden belardi motzak, hala nola Aralar, Andimendi eta Berriangoak. Nafarroan ere, 2.000 metroraingotzeko gauza da, eta Larra eta Ezkaurren aurki daiteke.



Arratsalde batean!

IKERNE INDAKOETXEA

Ostera huraxe ahal dudan guztietan egiten saiatzen naiz, hain atsegin egiten baitzait... Haruntzako bidea hartzen dut, oraindik ere, aukera izaten dudan guztietan. Irratikaseta eskuan dudala, atsegin ditudan doinuak —batzuentzako zaratak— gozatuz hasi ohi dut bide haren edertasuna.

Batzuetan egunak, asteak gehienetan, igarotzen nituen, eta ditut, zorionezko arratsalde horren zain, normalean oskarbi izaten zena. Goizez ere joan izan ohi naiz baina kilimak ez dira berdin izaten; arratsaldean, zerua oskarbi dagoelarik, hodeirik ez hamar kilometro inguruan, behintzat, eta zerua, gorri kolorez jantzia, eguzkiak beste egun batez uzten gaituela adierazten digu.

Arratsalde lainotsuetan ere iritsia naiz bidexka haren ildoak jarraitzen, baina berdina ez dela

pentsatzen jarraitzen dut, horrelako arratsaldeko batean nire barrenak engainatu nahirik, trajez aldatu nahirik, joan naiz; dena gaizki doakizu eta zure barruak astindu nahirik, loaren aztarnak ur hotzak uxatzen dituenaren antzera egin nahirik.

Bide hura edertasun desberdinez apaindurik agertzen zaigu, eta hasieran, lizarrez inguratutako bidexkari ekin behar diogu; erreka pasatu ahal izateko zubirantz jo behar dugu, baina eguraldi ona eta beroa egiten badu zapatilak erantzi eta, uretara. Egun erreka ez darama ur gehiegirik, baina ur korronteak eta higaturiko harrien leuntasunak halako atsegin bat sortarazten dute.

Atsegina egiten da oinak fresko-fresko dituzula ibiltzeari ematea. Bidean, txorien txoritxiokarekin bat egiten duen musikak barruko azken hezurra ere dantzan jartzen du.

Bidezidorrean dagoen haritzaren gerizpean etzan egiten naiz bertan igarotako une oroigarriak bergozatuz. Baina, bukarako plateraren gozoa galdu nahi ez badut, hau da, loak hartu aurretik, bidean nago berriz.

Zoriontasuna, alaitasuna, musikarekin zeinen ondo bat egiten duen pentsatuz, pago artean doan berdeskari jarraituz, inoiz aurkitutako lekuri zoragarrienera heltzen naiz.

Kilima arraro, baina gustuko batek nire gorputzean zehar bere ez ohizko bidea egiten du... hainbat oroitzapen, irudi, eta gauzak pasatzen zaizkit gogotik... kontatu ezin daitezkeen gauzak.

Hain gozoa egiten zait! Baina bizitza ez da horrela beti, ez eta egunerorako ere. Hala ere, urtean zehar horrelako pare bat egunekin konformatu egiten naiz, ez baitira beti horrela gertatzen, batzuetan txarragoak eta bestetan hobeak izaten dira.

KAZKARROAN

Jenero Xumekoak

Mari erreka/Regata de Marin

Citroen GS-ren atzekaldeko eserlekuan bi ultzamar, juxtu-juxtu sartzea normala da. Baina hain juxtu ez da normala. Bordatxora doaz. Heriotza garden-gardena da, eta atzekaldeko eserlekuan doa. Lehendabizikoa normala, bigarrena ez hain normala. Almandozeko Mari Errekako zubia gurutzatzerakoan Heriotzari otu zaio Mariri bisita bat egitea. Normala. Baina lau ultzamarrekin ur gardenetaraino normala ote? Hori hiltzea bezain normala da.

JEREMIAS ERRO

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Erretokiak
2. Janari
3. Herri nafarra
4. Alokairua
5. Izanak

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

N-63

1. Gizena
2. Herri nafarra
3. Sasaki
4. Betunak
5. Jakinen banu

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Altxoa
2. Herri nafarra
3. Jakinen balu
4. Aintzira
5. Soldatak

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5



BASAJAUN

Botere politiko-ekonomikoek, gure ibai, mendi, hondartza eta itsasoek pairatzen duten hondamendiaren erantzunle nagusiak, soluziobi-deak ez emateaz gain, ekologismoaren kontrako borrokan dihardute aspalditik hona. Duela bi urte ikusi ahal izan genuen nola egin zitzaion boikota Lurraldea koordinakundearen iragarki bati. Bertan iragartzen taldearen alternatiba azaltzen zuen bideoa.

Botere hauek dira, hain segur, Lurraldea erakundearen partaide batzuei, eta bereziki Jonan Fernandezi, heriotz mehatxuak bota zizkienak. Edozein ekologistak ez du erraz ahaztuko 'Rainbow Warrior' itsasontziak, (Greenpeace taldearen itsasontzi nagusia) pairatu zuen eraso, Frantziako Barne Ministeritzaren Zerbitzu Sekreturen eskuetatik. Argazki-lari bat hil zen orduan.

Eskandaluzkoa izan daiteke petrolio ustiratzen duen Inglaterra enpresa baten portaera, arazoa behin betikoz konpontzeko baliabideak paratu beharrean, teknologian eta ikerkuntzan inbertitu beharrean, bertako bi egunkariri txantaia egin baidie, Greenpeacearen publizitatea onartu ez dezaten, beraien publizitatea ez sartzeko nmehatxuaren truke. Eta lortu dute.

Itsasoaren defentsak aurrera egingo du, altxor hori mundu osoarena baita, baita enpresa horien agintarien semeena ere, baina izugarria da antzematea nola kapitalismo basatiak bere eskuetan dauzkan komunikabideak eta iritzi publikoa, nahi duten informazioari zentsura jarri ahal izateko.

Zaharrak berri

Fite erre ditik horrek pape-rak.

Agudo aspertu da eta utzi ditu lanak edo lagunak edo.

Luzaide

Ostatu batean, bazkari txar bat eginik, zutitzen da bazkaltirra eta nagusiarengana doa, erranez:

—Emaidazu musua, nagusia!

—Musu? Zerendako?...— dio nagusiak harriturik.

—Ez bainazu berriro hemen ikusiko!

Bizi Bizian

Euskal makilei buruzko idatzia argitaratu berri du 'Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra' izeneko sailak, bere azkenengo alean. Antxon Agirre Sorondo historialariak ida-

tzia, historiaurretik gure egunetara heldu den tresnarik xumeenak historian zehar izan dituen esanahi desberdinak eta, zenbaitzuk, galduen berri ematen digu.

Makilaren esanahi galduak

P.U. / IRUÑEA

Makilak betidanik izan du, historiaurretik gure egunetara, balio mitikoen esanahia, bai gizar-tearen antolaketan baita erlijio munduan ere. Lehendabiziko garai haietatik heldu zaizkigunak 'aginte-makilak' ziren, nahiz eta beren betebeharra oraindik oso zehaztuta ez dagoen. Erabilitako materialak zein kokapenak baina, garbi adierazten dute beren garrantziaz. Eskutokiak orein edo mota horretako animalien adarrez egindakoak dira, zenbait zulorekin, eta kobazuloetan aurki daitezkeen pinturen antzeko gaiak zizelduak.

Halaber, Bibliako testuetan nagusi dira Jainkoaren botereari buruzko aipuak, beti makilen bidez gauzatuak, eta erlijioan makuluak duen garrantziak —Aita Santuarena, kardinalena eta apezpikuena—. Elizaren jatorrizko tradizioetan du oinarria. Behialako elizkizunetako agerietan agertzen denez, fededunak makilekin joaten ziren bertara, nahiz eta horren arrazoia oraindik oso garbi ez dagoen. Hiru interpretazio daude: makilak atsedean hartzeko aproposak ziren, gurutzearen sinboloak ziren edo lege zaharraren hondar gisa har zitezkeen.

Erligioaz landa, gizarte zibillean ere makilaren erabilera bere garrantzia eta bere araudiak izan zituen beste garai batean. Tafallako Foruak esaten zuen Justizia funtzionari zenbaitek ezin zutela armarik eraman, «bai ordea makila», eta 1686an argitaratu zen Nafarroako Foruak azaltzen zuen Korella, Alesbes, Zentroniko eta Kaskanteko errejidoreek «makila eramateko zuten erregearen baimena».

Egun, oraindik ere, alkatearen makila esanahiz betetako tresna da, eta zenbait herritan jai edo ohituren parte garrantzitsua da.

Deierri eta Gesalaten gazteen heldutasuna ospatzeko egiten zen festan bakoitzak eskuetan makila bat zaramala etxez etxe ibiltzen zen, puskabila. Altsasun, Santa Agedako egunean, ezpelez egindako makila bana eramaten dute gazteek, lagunak, amak edo familiak eginda-

ko zapiez apaindurik, eta ohitura bada betirako gordetzea. Makila hauek gorosti, ezpel edo basariondo egurrarekin egindakoak izaten ziren mendialdeko herrietan, eta haritza, olibondoa edo zumarrarekin egindakoak bestetan.

Baina horretaz gain, makila oso erabilia izan da historia zehar arma gisa, eta historialariek horren erreferentzia asko topatu izan dituzte artxiboetan. Arabako Arkeologi Museoan Historiaurreko gaixotasunei buruz egindako erakusketa batean aurkitutako ukal-hezur hautsiak aurkeztu ziren sail oso batean, eta Francisco Etxeberria Gabilondo paleopatologo ospetsuak azaldu zuenez, hausturak «kolpe zuzen batek eragindakoak ziren, masaila erasotzailearen aurrean babestean jasotzen direnaren antzekoa. Haustura hauek oso ugariak dira behialako herrien artean, arma eta defentsarako bide bakarra makilak baitziren».

Makilaren erabilera ere auzi franko sortzen zituen, eta bereziki larria zen makila zeramanari eraso egitea, berez maila handiagokoa baitzen, eta beste baten makila puskatzea, justiziaren aurkako erasotzat hartzen baitzen. Nafarroako artxiboak makilaz egindako erasoei buruzko epaiketaz beteta daude, eta aipatu 1686ko Nafarroako Foruak nekazarien arteko auziak epaitzeko 'makila gatazka' legeztatu eta arautu zuela. Bertan jasotzen denez, auzia konpontzeko justiziak bidea aurkitu ezean, bi aldeen arteko borroka izaten zen. Aurreko gau osoa eman behar zuten zelatan, elizan, eta hurrengo egunean, justizia egileek eta lekuok lagundurik, zelaiara joaten ziren, makilaz eta eskutuz horniturik. Egun osoan zehar alde batek bestearen menperatzen ez bazuen, hurrengo egunean jarraitu beharra zegoen liskarra. Bat hilez gero, isuna ordaindu behar zuten besteak.

1 686ko Nafarroako Foruak nekazarien arteko auziak epaitzeko 'makila gatazka' legeztatu eta arautu zuen. Auzia konpontzeko justiziak bidea aurkitzen ez bazuen, bi aldeen arteko borroka izaten zen.

Borrokarako tresna preziatua izateaz gain, aisialdirako eta beste jarduerara lasaiagoetarako ere erabili zen makila, eta hortik bere inguruan sortu diren hainbat dantza, Nafarroan *paloteados* derituzanak, kasu.



P.U. / IRUÑEA

Artzainen eskuek egiten duten gazta bakoitzak zapore berezkoa duen gisara, ez dira aise aurkitzen artisauren batek egindako bi makila berdinak. Hemen ere, bakoitzak badu bere prozedura, baina, oro har, badaude makilak egiteko bi modu hauek, bi motatakoak izan baitaitezke. Lehendabizikoak ez du, derrigorrez, zerbait izkiriatu eraman behar, eta burdinazko akuilua dauka puntan. Bestea da ohizko makila, eta eskutokia desmuntatu daiteke, barruan beste akuiluaren antzekoa baitarama. Lehendabizikoak mendian ibiltzeko, artzainek erabiltzeko edo edozein tokitan eramatekoak dira; bigarrenek beste maila dute, landuagoak eta garestiagoak

Mizpira, ezpela, elorri beltza, urria...

izaten baitira.

Zizeldurik gabekoak egiteko zurik hoberena urria izaten da Nafarroan, gaztainondoa Bizkaian, elorri beltza Gipuzkoan, ezpela Araban, eta mizpira Iparraldean. Oso garrantzitsua da eguna zura mozteko, ilargiaren posizioa funtsezkoa baita. Lehendabiziz 110 zentrimetroko makila moztu behar dago, eta ondoren pertsona bakoitzaren neurria egokitu. Haga oker baldin badago, gogortu egin beharra dago, eta horretarako 8 eta 15 egun bitarte uzten da, zuzen-zuzen zerbait lotuta. Behin zuzenduta, puntan altzairuzko funda jartzen da, eta ondoren eskutokiarekin hasten da. Normalean ezpel edo lizarra jartzen da bertan. Kolorea eman eta bukatuta dago.

Ohizko makila egiteko prozesua franko zailago eta luzeagoa izaten da. Mizpira da zurik gogokoena, baina emaitza hobetzeko

udaberri aldera zenbait ebaki egin behar zaizkio, hortik ateratuko izerdiak erliebe ederrak sortuko baititu zuraren azalean. Haga neguan moztzen da, ilargia ilbehera dagoenean, eta behin sutan beroturik, zurituko da.

Behin lehortuta, ura eta karez osatutako nahasketan sartuko da bi ordutan, zertxobait belzteko, eta ondoren eguzkipean utziko da. Hala ere, urtebete egon beharko du oraindik hagak erabili gabe, zura sendotu dadin. Behin denbora hori pasata, punta batean latoizko funda bat jartzen da, eskuz zizeldurik, eta barruan, zura eta latoiaren artean, beruna urtuta botatzen da, pisu handiagoa ematearren.

Hagaren beste muturrean, kiribila duen beste punta bat paratzen da, eskutokia sartzeko. Hau larruz estaltzen da, eta puntan adar baten hezurraz egindako bola bat paratzen da.

Iñaki Perurena

..... harrijasotzailea

Leitzako harrijasotzaile handia 316 kiloko harria bi eskuekin, eta 264koa esku bakar batekin altxatzen ahaleginduko da bihar, larunbata, Azpeitian. Bi marka berriak, alegia. Perurenaren itzulia izango da hau, duela bi urte

pasatxo utzi baitzion markak jartzeari. Gorputzaldi ona, material hobea aurkitzea, eta, nola ez, Saralegiren markak dira horren arrazoietaoak. Bitartean, azken honek iragarri du bere herrikidearen markaren atzetik joango dela.

«Larunbatetik aurrera mintzatuko gara»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Bi urte markak jarri gabe, eta mundu hori pixka bat utzita izan ondoren, zerk bultzatu zaitu berriro marka baten bila abiatzera?

IÑAKI PERURENA.— Jende askok esan dit urteak aurrera doazela eta markak egiteari utzi beharra dagoela, baina telebistako programak bukatuta, exhibizioak egiten hasi nintzenean, berriz gorputza ikusi nuen nahiko ongi, eta ametsa pizten zaizu zerbait egin nahian. Orain, gorputza ekarri dut berriro puntura eta hiru arrazoi bereziko nituzke berriz itzultzeko. Lehena: gaurko harriak lehenagokoak baino hobeak direla, eta horrek abantaila pixka bat ematen du. Bigarrena: beti eskatu dute antidopin serioa egitea, eta orain arte herri kirolean ez zegoen mediorik horrelako on bat egiteko. Gaur egun, bai eta horrek indartu nau nere azken errekorrak egiteko, gaur edo bihar esateko nere errekorrak modu naturalean egin nituela. Hirugarren arrazoia da jendeak esan dezala nere marka zein den, baina egun berean esku batekin eta biek in egindako markak zenbatuz. Nere berezitasuna hori baita: bi eskuz eta esku batez errekorra egitea.

EGUNKARIA.— Harriak hobetzearena zuk aspaldian eskatu zenuen. Oraingo harriak hobeak al dira?

PERURENA.— Nik bidea urratzen ibili behar izan nuen, eta harri handiekin bolumenaren arazoak genuen. Orduan lortu ziren material hobeak, eta nik esan nuen egokia ikusten nuela beruna sartzea, harrijasotzailearen bolumenarekin egokitzeko. Nik hori esan nuen, nahiz eta beste batzuek, isilean, beruna sartu ha-

rrietan. Azkeneko harriak —312, 313, 314 eta 315 kilokoak— berunarekin egin nituen, baina handik honuntza oraindik asko hobetu egin da. Abantaila handia dago, beraz. Adibide bezala jarriko dut: nik jaso nuen 290 kiloko harriak 40 zentimetroko zabalera zuen, eta gaur egun jaso nahiko nukeen 316koak 36 zentimetro eskastxo du. Lau zentimetro basterrean zabaltzearekin atera kontuak zer traba egiten duen jasotzeko.

EGUNKARIA.— Antidopinarena ere aipatu duzu. Noizbait aditu edo esan dizute zure markak ez zituztela sinisten?

PERURENA.— Nik badakit norbaitek esan izan duela 'honek zerbait hartuko dik'. Kalean beti esaten da eliteko kirolariak zerbait hartzen dutela. Gainera, apustuaren barrenean beti esan ohi da horrelako mafia badagoela. Esate baterako, orain denbora asko ez dela, 'El Diario Vasco' egunkariak atera zuen bi orrialdeko erreportaia handia, eta izenburua zuen: 'Herri kirola: esaten den bezain garbia?'. Orduan, horrelako batzuk aldizka ateratzen dira. Niri inork ez dit esan, eta nik uste dut denek pentsatuko dutela ni bide naturaletik nabilela, baina beti izaten da zerbait, halako zurrumurrua. Niregatik, eta beste kirolariengatik, eta gure semeek kirola egiten jarraitzen dutenentzako bide garbia uzteko modua, horixe dela uste dut. Gaur, kirol guztietan antidopin kontrola egiten ari dira, eta indar kirolean bereziki dopin kasu asko atera dira azken urteotan. Hori guztia garbitzeko, nik uste dut mesedegarria izango dela herri kirolean ere antidopin kontrolak egitea. Nere aldetik, eta herri kirola egiten duten gehien... ia denen aldetik ez dago dopina, baina hori



Bergaran ari da entrenatzen egunotan Iñaki Perurena.

garbi utzi beharra guk dugu.

EGUNKARIA.— Marka berriro egiteko ahaleginetan sartzean Saralegiren markek ere eragina izango zuten.

PERURENA.— Bai, noski. Horrek beti espoleatu egiten zaitu. Nik errekorra utzi nuenean, oraindik besteak urruti zeuden. Orain, Sa-

ralegi ari da harria oso ongi jasotzen, eta nik esan dut: 'Eta nik zergatik ez dut gehiago jaso behar?'. Horrek bultzatu egiten zaitu.

EGUNKARIA.— Espero zenuen Saralegiren progresio hau?

PERURENA.— Bai, hori ikusten zen. Ez nau batere harritu.

Dopinari buruz komentarioak aldizka ateratzen dira. Niri inork ez dit ezer esan, eta uste dut denek pentsatuko dutela bide naturaletik nabilela, baina beti izaten da zerbait, halako zurrumurrua».

EGUNKARIA.— Saralegi eta zure arteko lehia ona iruditzen zaizu herri kirolarendako? Batzuetan beste harrijasotzaile batzuk izkutuan gelditzen dira, ordea.

PERURENA.— Lehia bat kirolaren artean izatea nik uste dut kirolaren onerako dela, lehia sana. Izkutuan zein gelditzen da? Izkutuan gelditu behar duena. Beste batek jasoko balu, argira aterako litzateke. Hori kirol guztietan gertatzen da. Niri, adibidez, orain dela hiru urte hainbat eta hainbat kazetarik deitzen zidan, eta errekorrak uzten nituela esan nuenetik inork ez zidan deitzen. Orain berriro, denak telefonoz deika ari dira. Horrelaxe dira gauzak.

EGUNKARIA.— Larunbatean altxatzen baduzu, zerbait aldatuko da? Zerbait hasi edo zerbait bukatuko da?

PERURENA.— Momentuan, ikus dezagun larunbatekoa eta ez gaitzen gehiegi aurreratu. Bi urte geldirik egon, eta saioa etorri, eta segituan aurre hartu nahian gaitza. Ikus dezagun larunbatekoa eta gero hitz egingo dugu pa-txadaz.

NOSKI
JATOR

ZVLDI ERGA

